

FUNTSEZKO SOZIETATEAK

Negozioan momentuz 4 langile egongo gara, hain zuzen enpresaren sortzaileak garenok. Hau da sozietate edo aliantza nagusia. Nahiz eta bakoitzak negozioaren arlo bat kudeatu, guztiok irteeretan parte hartuko dugu. Hortaz aparte, dendan gure produktuak saltzen egongo gara.

- June: Marketing eta negozio gestioa.
- Haizea: bigarren eskuko arropen diseinuaren arduraduna.
- Malen: Pertsonekin eta hornitzaileekin harremanak.
- Garazi: Webgunea kudeatuko du.

Bestalde, Ecoalf markarekin lan egingo dugu, jasangarritasunaren aldeko apustua egiten duen modazko marka Espainiarra dena. Baita Kooperera enpresarekin ere egingo dugu lan, moda jasangarria prezio baxuan bultzatzen dutelako ingurumena zainduz.

Amaitzeko, gure negozioa aplikazio propioa duenez, App Store-rekin kontratu bat dugu gure bezeroek han aplikazioa deskargatu ahal izateko.

